


2019



LURRA SENTITUZ EMAKUMEOK ELKARREKIN EREITEN

*Elikadura Burujabetza, Feminismoen eta
lurraldearen defentsaren inguruko Foroa:*
IRUÑEA, ELIZONDO - 2019KO ABENDUAK 14,15

RELATORIA

Idazketa: Ester Montero eta
Lara Román

Edizioa: Mugarik Gabe Nafarroa



Egileak:



ARREA Elkarte Agroekologikoa



Observatorio para una Cultura del Territorio



Mugarik Gabe Nafarroa



Mundubat



Fundacion IPES Elkartea

Babeslea:



SARRERA

Foro hau Iruñean (Plazara! gune komunitarioan) eta Elizondon egin zen, 2019ko abenduaren 14 eta 15ean; Mugarik Gabe Nafarroak, Mundubat-ek eta GITEk antolatu zuten, Arrearekin lankidetzan, eta Nafarroako Gobernuak finantzatu zuen.

Helburu nagusiak hauexek izan ziren:

- Elkargune bat sortzea, feminismoen, lurraldearen defentsaren eta elikadura-subiranotasunaren inguruko borroka amankomunak jorratzeko eta haietaz hausnartzeko.
- Ardatz horietan interesaturiko kolektiboen edota emakumezkoen artikulazioa erraztea – Nafarroan, batik bat –, forotik haranzko langune batean.

Bertan, ehun emakumezko bano gehiago hartu genuen parte, guztiok elikadura-subiranotasunaren, lurralde-defentsaren eta feminismoaren aldeko mugimenduei loturik; gehienok nafarrak, nahiz eta Euskal Herriko beste eskualdeetatik eta penintsulatik baten bat ere etorri.

LARUNBATA 14

ONGIETORRIA ETA AURKEZPENA

Mugarik Gabe Nafarroak eta Mundubat-ek ongietorria egin zieten forora bertaratu zirenei.

Abegia egiteko bi dinamika planteatu genituen; horrela, parte-hartzaileen irudia zehaztu ahal izan genuen: batetik, jakiteko ea bakoitza non kokatzen den feminismoen eta elikadura-subiranotasunaren inguruan —horiexek baitziren erabili beharreko kontzeptu nagusiak—; bestetik, ebaluatzeko ea, aldez aurretik, gai horietako bakoitzak nolako esanahia duen parte-hartzaileentzat. Eguna Irene Garcíaren eskutik hasi genuen: hark feminismoen eta elikadura-subiranotasunaren testuinguruaz eta haien arteko harremanez hitz egin zigun.



ELIKADURA-SUBIRANOTASUNA ETA FEMINISMOAK, TESTUINGURUAK ETA HARREMANAK

LEHENENGO SAIOA

Irene García Rocés – Varagaña elkartekoa, generoa eta agroekologia¹.

Hitz hauek era **kolektibo** batez eraikitako pentsamendu batetik datoz; eta, gainera, “**begirada haragikara**” baten fruitu dira, **ezagutzaren inpartzialtasuna** aintzat hartuta denbora guztian, leku jakin batetik hitz egiten eta pentsatzen baita.

Pluralez izendatuko dugu: **elikadura-subiranotasunak, agroekologiak eta feminismoak**, beraien barruko dibertsitatea islatzeko. Horiek denak bat datoz kontu batean: utopiak dira; hala ere, eskuratu bitartean kontraesanek beteriko mundu batean bizi gara eta, gauzak horrela, komeni zaigu umilak izatea.

Zein zerikusi du elikadura-subiranotasunak feminismoekin?

Hala agroekologiak nola elikadura-subiranotasunak beti izan dute justizia soziala bihotzean: biek aldarrikatzen dute elikadura osasungarria pertsonen eskubidea dela; biek defendatzen dute nekazarien ezagutza; biek salatzen dute elikagaiak ekoizteko pertsonen eta lurraldeen ustiaketa, zeina logika kapitalisten mende sustatzen den; azkenik, biek salatzen dituzte ezberdintasun sozialak, klase sozialarekin, zein zentro/periferia edo landa/hiria dikotomiekin erlazionaturikoak.

Hala ere, agroekologia-mugimenduetan gabiltzan feminista askok uste dugu generoarekin loturiko ezberdintasun ugari ez direla kontuan hartzen. Agroekologian, gizonezkoa da erreferentziako subjektua, eta emakumezkoekin lotura duen guztia ikusezin bihurtu eta gutxietsi egiten da.

Horren adibide bat da **Vía Campesinako emakumezkoek beren batzarra** sortu behar izan zutela. Hortaz, ezin dugu onartu, inolaz ere, elikadura-subiranotasuna eta agroekologia berez direnik feministak.

Elikadura-subiranotasuna eta agroekologia feminismoetatik zalantzan jarri behar diren gisa berean, feminismoak ere zalantzan jartzen ari dira, barrutik zein lurraldearen defentsaren aldeko beste mugimendu batzuen aldetik.

Landa-guneetako feministek —edo, bestela esanda, **periferiako feministek**— **feminismo zuri hegemonikoa interpelatzan dute**, emakumezko subjektua homogeneizatu nahi izateagatik eta borroka-agenda joera etnozentriko batetik markatu nahi izateagatik, mendebaldeko kultura erreferentziatzat hartuta eta gainontzeko herri eta kulturak gutxietsita.

Gainera, emakumezko nekazarien, indigenen eta landa-feminismoen aldetik, zalantzan jartzen da, halaber, **feminismo hegemonikoaren joera hirizentrikoa**, horrek landa-munduaren mespretxua eta hiriaren zentralitatea baitakartzat, bigarrena erreferentzia bakar bihurtuta.

¹ Ponentziaren bideoa: <https://vimeo.com/387648548>

Latinoamerikako feminismo komunitarioetatik eta ekofeminismoetatik baieztatzen dute badagoela loturarik bi kontuon artean: batetik, mundu naturalaren ustiakuntza eta narriadura, eta, bestetik, emakumezkoen mendekotasuna eta opresioa.

Zergatik da garrantzitsua eztabaida egitea perspektiben artean?

Elikadura agroekologiko, subirano eta feminista lortzea ez da bide erraza geure eguneroko bizitzarako. **Patriarkatuak eragina du proposamen agroekologikoetan**, hala teorian nola praktikan, eta, gainera, nekazari-erakundeek, elkarte ekologistek, talde antidesarrollistek eta abarrek segitzen dute oso patriarkalak izaten eta menderatze-dinamikak sortzen.

Etxe barruko zereginak eta zaintza-lanak **behar bezala ez banatzeak** ekarri du emakumezkoek denbora gutxiago eskaini ahal izatea elikadura-kontuei. Bestalde, elikaduraren beraren aldaketak ere erraztu du egoera hori: gero eta janari prefabrikatu eta industrializatu gehiago kontsumitzen dugu. Hala, trantsizio agroekologiko feminista ez da bideragarria izango balio horiek alor guztietan irauli ezean eta gizarteak gaiari behar besteko garrantzia aitortzen ez dion bitartean.

Elikagaien munduko ekoizpena gero eta bananduago dago lurraldetik; izan ere, elikatzeko kontsumo-eredu kaltegarriak sustatzen ari gara: eredu horiek nekazari pobretuen gorputzak ustiatu, lurraldeak suntsitu eta lur-sailak metatzen dituzte, besteak beste.

Zer ekar diezagukete feminismo nekazari-deskolonialek?

Elkarrizketari ekiteko garaian, funtsezkoa da **bazterretako feminismoetatik** ikastea; izan ere, emakumezkoek ez gara kolektibo homogenea: aitzitik, **hainbat opresio-ardatzek** zeharkatzen gaituzte (sexu-orientazioa, klase soziala, etnia, adina...).

Alderdi nagusi bat da ea zergatik feminismoak —batez ere, feminismo europar hegemonikoak— urrun geratu diren lurraldearen defentsarako borroketatik. **Feminista komunitarioak** (Lorena Cabnal, esate baterako) gorputzaren eta lurraldearen arteko loturaz mintzatzen dira: haientzat, lurraldea norberaren gorputzaren luzapena besterik ez da, espazio horretantxe gara baititzakegu, erabat, geure gaitasunak.

Feminismoen eta elikadura-subiranotasunaren arteko elkarrizketak helburu komuna izan dezake oinarri: **elikadura eta bizitza erdigunean jartzea**.



Agroekologia feministak aztertu behar du nola eraiki proposamen agroekologiko bideragarriak, zeinek **diru-sarrera duinak** eskainiko dizkieten nekazariei eta elikadura-ekoizpenean diharduten pertsona orori, bai eta **arrazoizko salneurriak** ere kontsumitzaile prekarizatuei.

Lehen urratsa da emakumezkoon ohiko lanekiko (hala zelaian nola sukaldeetan) gutxiespen soziala onartzea, azaltzea eta hari aurre egitea. Estimazioa eskuratu behar da, eta horrekin batera debatea piztu behar da pribilegioen inguruan, argitzeko zein lan diren garrantzitsuak gizarterako.

Beste urrats nahitaezko bat da familia barruko botere-erlazioak kolokan jartzea eta «familia heteropatriarkal normatibo (nekazariena izan ala ez izan)» horren idealizazioa apurtzea. Gizabanakoen eta kolektiboen arteko artikulazioek aukera ematen digute asti faltari (erritmo produktibistek sortua) aurre egiteko. Bakarrik batuta, “**manada**” bat eginda, izango gara gai indarkeria patriarkalari aurre egiteko. Horretarako, ezinbestekoa da **aliantza** eratzea **hiri-feminismoekin**.

Agroekologia feministak (edo feminismo agroekologikoak) helburu du erlazio patriarkalak apurtzea bizitza autonomoagoetara (“bizitzea merezi duten bizitzak”) gerturatzeko, non nekazaritza eta elikadura bizitzaren zerbitzura egongo diren, eta ez merkatuaren mende. Horrela, guretzat, elikadura-subiranotasuna **tresna** bat da **autonomia, eta ekitate indibiduala zein kolektiboa** sustatzeko dibertsitatearen barruan, lurraldeetatik zein bertan bizi diren pertsonen asmo eta sentipenetatik hasita.

Ondoko debatean, parte-hartzeek nabarmendu egin zituzten sektorearen egoera kritikoa (desagertzeaz dago) eta zein beharrezkoa den elikadura-subiranotasunaren aldeko emakumezko ekoizle gehiago hastea gune horietan.

KARTOGRAFIA KORPORALAK, FEMINISMOEN ETA LURRALDEEN ARTEKO LOTURAK – TALDEKAKO TAILERRA

Lan partizipatiborako lehen espazioa Alicia Migliaro eta Miriam García Torresekin egin genuen; biak dira Miradas Críticas del Territorio desde el Feminismo kolektiboko kide (Latinoamerikako eta Karibeko kolektibo feminista da, zeinak, haien hitzetan esanda, “metodologia feministen bitartez, begiradak sortzen dituen gorputzak eta lurraldeak lotzeko”).

Haiekin, lehenik eta behin, aurkezpen-erronda labur bat egin genuen, parte-hartzaile asko baikinen. Segidan, lanari buruzko beren ikuspegia azaldu zuten; hainbat iturritatik dator: feminismo latinoamerikar dekolonialetatik, feminismo latinoamerikar komunitarioetatik, askapenerako teologia feministetatik eta emakume geografo feministengandik.



Ondoren, bi taldetan banandu eta haien kolektiboaren “Gorputza eta lurraldea mapatzen” izeneko tailerra egiten hasi ginen; zaila izan zen tailer hori aurrera eramatea, moldatu behar izan baikenuen parte-hartzaileen kopuru handira (45na emakumeko bi talde), aurreikusitako denborara eta guneetara.

Tailerrerako metodologiak, “Mapeando Cuerpo-Territorio” (Miradas Críticas del Territorio desde el Feminismo kolektiboa, 2017)², beren liburuan azaltzen dutenez, ez dira esku-hartzerako eredu, bidea baizik; bide horrek hainbat hausnarketa- eta erresonantzia-norabidetara garamatza, non gorputzen eta lurraldeen arteko artikulazioa estrategia bihurtzen baita bizi garen lurraldeak eta geure biziak ere defendatzeko.

Tailer horrek bi atal izan zituen: aurrenekoan, antzerki sentsoriala izan genuen, helburua zelarik, besteak beste, gorputzaren memoria lantzea, emozioak politizatzen genituen bitartean; bigarrenean, kartografia korporala: parte-hartzaileek beren burua marraztu zuten eta, gero, zenbait dinamikaren bitartez, marrazkiak mapa bihurtu zituzten, zeinak erlazionatzen zituen gure lurraldeak eta haiek geure gorputzetatik nola bizi ditugun.

² Liburua hemen dago eskuragarri: <https://territorioyfeminismos.org/>

“Gorputza gure lehen lurraldetzat pentsatzen dugu, eta lurraldea geure gorputzetan ezagutzen dugu: bizi garen tokiak bortxaz tratatzen dituztenean, horrek geure gorputzei erasaten die; gure gorputzei erasanez gero, bizi garen tokiak bortxa pairatzen dute. Esperientzia sentikorraren garrantzia aldarrikatzen dugu; geure gorputzek haragiztatzen dituzte gure bizitza eta gure oroimena; geure zentzumenek lotzen gaituzte lurraldeekin. Zer gertatu lurraldeetan, horixe geratzen da inprimatuta gorputzean: tristura, ustiakuntzarengatik; larritasuna, kutsadurarengatik; poza, beste mundu batzuk eraikitzen ari garelako horrenbesteko indarkeria egonda ere. Lapurretaren aurrean, zubiak sortu nahi ditugu feminismoaren, ekologismoaren, naturaren eta lurraldeen artean. Zubi horiek aukera emango digute munduari era integralago eta, aldi berean, sentikorrago batez begiratzeko; eta, batik bat, posible egingo dute geure burua pentsatze hau geure bizitza eraldatzeko ekintzak bihur dadila. Sarri, metodologia korporalen bidez egiten dugu hori: saiatzeko gara esperientziak hausnarketekin lotzen, erresistentzia-estrategia kolektiboak bilatu nahian”³.

BAZKARIA

Bazkari agroekologikoa, tokikoa eta urte-sasoikoa izan zen (eta oso goxoa, bide batez); prestatzeaz, Ziordiko Amarauna kolektiboa arduratu zen, Burunda haraneko guneko autogestionatua⁴.



³ Miradas críticas del territorio desde el feminismo/ Gutaz (Sobre nosotras): <https://territorioyfeminismos.org/about/>

⁴ Amarauna: <https://amaraunaziordia.wordpress.com/>

ELKARRIZKETA FEMINISTAK ELIKADURA-SUBIRANOTASUNAREN ETA ESPEZISMOAREN INGURUAN

Ester Montero, mahaiko moderatzailea, hizketan hasi zen gai gatazkatsuei ekiteko moduz: beharrezkoa da horrelakoak begirunez, entzuketa aktiboz eta elkar zainduz jorratzea; horrela, jarrera guztiak sakonago ezagutu eta baloratu ahalko dugu zer egin dezakegun elkarrekin. Ondoren, txanda eman zien Gotzone Sestoraini eta Carla Ruizi.

Gotzone Sestorain, baserritarra, *Leitzeko*⁵ eta *Etxaldeko Emakumeak*⁶ elkarteetako kide

Lehenik eta behin, erran behar dut ez naizela abeltzain sentitzen: ni **baserritarra** naiz. Elikadura-subiranotasunari jarraikiz egiten dugu lan; guretzat, baserria kontzeptu integrala da: artzainak gara, abeltzainak, nekazariak, lurraren, lurraldearen eta bertako izaki guztien zaintzaile.

Gure **ekoizpen-eredua** oso **lotuta** dago **gure lurraldeko baliabide naturalei**. Leitza toki menditsua da, eta hagitz hezea; larreak dira gure baliabide nagusia, eta horrexegatik dugu abeltzain-tradizioa.

Gure baserri-kulturan, abeltzaintza eta nekazaritza elkarri lotuta daude: **interdependenteak** dira. Gu nekazariak ere bagara; izan ere, lurra zaintzen eta lantzen dugu, emankorra izan dadin eta bazka ugari zein bertzelako produktuak eman ditzan, eta horretarako gure abereen ongaria baliatzen dugu. Aldi berean, lorezainak gara, paisaia ere sortzen baitugu.

Baina gure **multifuntzionalitatea** ez da hor finitzen; izan ere, horretaz guztiaz gain, elikagai-ekoizleak eta lehengaien eraldatzaileak gara, eta, azkenik, merkatariak ere bagara, inguruko kontsumitzaileei saltzen baitizkiegu geure produktuak azoketan edo denda txikietan. Horrelaxe sortzen dugu ehun sozioekonomiko subiranoa eta lurraldeari lotua.

Euskal Herrian ehunka baserritar ari dira elikadura-subiranotasunaren klabeetan lanean, baina hori ez da eredu hegemonikoa, are gutxiago Nafarroan. Izan ere, gure Komunitatean bertze ekoizpen-eredu bat nagusitu da azken 40 urteotan: **nekazaritza eta abeltzaintza industrialeko eredu**. Azken hori elikadura-sistema globalizatuaren zerbitzura dago, kapitalak antolatua eta zuzendua, interes ekonomiko-finantzario jakin batzuen onurarako.

Ekoizpen-eredu hori gure baserri-kultura eta nekazarion ekoizpen-logika suntsitzera etorri da. Logika kapitalistari jarraitzen dio: kopuru handiak ekoiztea ahalik eta preziorik merkeenean, bitartekariak merkatuetan sal ditzaten ahalik eta etekinik handiena lortuta, jakinda merkatu hori lau multinazional erraldoik kontrolatzen dutela ia osorik. Eredu horrek oinarria du lurraren, landareen, animalien, pertsonen eta lurraldeen ustiakuntzan. Halaber, botere/mendekotasun erlazioak eta gizon eta emakumeen arteko harreman desorekatuak are gehiago larritu dira, eta horren ondorioak zeharo suntsigarriak dira maila guztietan: ekologian, gizartean, osasungintzan, hegoaldearen eta iparraldearen arteko desberdintasun-harreman globaletan, gure kultura gastronomikoan eta abarretan.

Galdera honi (**Nola bermatu planetako pertsona ororen eskubidea elikadura osasungarria edukitzeko, lurrak ezarritako muga ekologikoak eta pertsona ekoizleen eskubideak errespetaturik?**), honela erantzuten diot:

⁵ Leitzeko: <http://www.leitzekokt.eus/>

⁶ Etxaldeko emakumeak: <https://www.elikaherria.eus/analisis-de-las-leyes-desde-una-perspectiva-campesina-y-feminista/?lang=es>

Elikadura-subiranotasuna eraikiz proposamen politiko gisa, non planteatzen den elikadura-sistemen (alegia, ekoizpenaren, eraldaketaren, banaketaren eta kontsumoaren) birkokapena eta eraldatzea. Elikadura-subiranotasunak proposatzen du begirada holistiko batez lan egitea, planeta-mailan, kapitalaren ordezkari bizitzaren kokatuta erdialdean. Globalean pentsatu eta tokian jardun.

Elikadura-subiranotasunaren bi ardatz:

1. Elikadura osasungarria izateko eskubidea bermatu planetako pertsona guztiei tokian tokiko dieta agroekologikoen bidez, lurralde bakoitzeko baliabideetan eta aukeretan oinarriturik.
2. Ekoizpen-eredu jasangarria sustatu, zeinak lurra, baliabideak, landareak, animaliak eta pertsonen eskubideak errespetatuko dituen.

Azken hausnarketa: elikadura-subiranotasuna soilik **eraiki** daiteke **era kolektiboan**, prozesu gisa ulertuta. Zentzu horretan, guztion erantzukizuna da, batetik, elikadura-sistema kapitalistak suntsituriko harremanak eta orekak berreraikitzea, eta, bertetik, indarrak metatzea bizitzaren alde.

Carla Ruiz, feminista antiespezista.

Hasteko, balioetsi nahi dut nolako garrantzia duen **elkarrizketak sustatzeak** feminismo- eta ruralitate-mota jakin bat eraikitzeke, non denok geure lekua izan dezagun eta nor bere ekarpena egin ahal izan dezan. Horregatik, analizatu behar dugu zein elkargunetan batu gaitzkeen.

Ni hemen nago **landa-gunean bizi naizen feminista antiespezista** gisa. Ez naiz mintzatzen feminismo antiespezistaren izenean; neure testuingurutik eta neure esperientziatik nator, baina hausnarketa hauek badituzte, beren baitan, feminista antiespezista batzuek zenbait artikulua eta saiakeratan landutako ezagutza kolektiboak.

Antiespezismoa kontu feminista al da?

Sexismoa eta espezismoa, bi-biak adierazten dira antzeko hierarkiazko eta meneratzezko opresio-patroien bidez: objektualizazioa, menpekotasuna eta abusua. Bien arteko aldea da animaliek ezin dutela beren ahotsa baliatu.

Antiespezismoa kolonialista al da?

Interseksionalitateak opresio-sistemen arteko loturak ikusten laguntzen digu. Ikuspegi dekolonialeko egile antiespezista batzuek diotenez, zuzena litzateke onartzea diskriminazioak, opresio espezistak eta gizakion supremazismoak hurbiltzen gaituztela dominazio kolonialistara, eta ez haiek ukatzeak.

Beganismoa kontu pertsonala al da?

“Kontu pertsonalak politika dira”. Jateko moduak ere badu garrantzi politikoa, beste norbanakoei eragiten dien eta munduaren konfigurazio gutxi gorabehera bidezkoari laguntzen dion neurrian.

Bigarren mailako kontua ote?

Gizakien arteko bidegabekeriak konpondutakoan kargutu ahal izango gara gizaki ez besteko animaliez: ez dago lehentasunezko eta lehentasunik gabeko borrokarik, ezpada apustu etiko-politikoak, testuinguru konplexuetan eta espazio-denbora dimentsio mugatuetan kokaturik.

Hau falazia hutsa da: “Antiespezistok gehiago kezkatzen zarete animalientatik, gizakiengatik baino”.

Gorputza, gure gorputza, ez da objektua; era berean, Lurreko beste espezie guztien gorputzak ere ez dira objektuak. Denok gara eskubide osoko subjektuak; subjektu autonomoak gara:

sentitzen dugu, bizi gara, eta justizia, askatasuna zein begirunea merezi ditugu. Generoak, eta berdin espezieak, ez du inor jartzen beste inoren azpian. Berdintasun osoa eta unibertsa bilatzen dugu; androzentrismoa eta antropozentrismoa azpiratzea bilatzen dugu. *“Ez zapalduak, ez zapaltzaileak”*: lelo horrexek ezaugarritzen gaitu.

Beganismo kapitalista edo kapitalismo berdea

Beganismoa, oinarri politikorik izan ezean, beste kontsumitzeko produktu bat izango da sistema barruan.

Ruralismoa

Badaude hainbat modu landa-gunean habitatzeko: abereen hazkuntza eta ustiaketa ez da ruralitatearen ardatz egituratzailea.

Landatar/hiritar binarismoak:

- Lotu egiten ditu izaera landatarra eta gainontzeko animalien erabilera.
- Ikusezin bihurtzen ditu, eta isilarazi, landa-munduan jaio eta garaturiko diskurtso espezistak, hori guztia esatea hiritartzat, kapitalistatzat eta globalizatzailetzat hartzen baita (eta, horrela, legitimazioa kentzen zaio).
- Binarismo hori artifiziala eta denontzako kaltegarria da; Estatuan, nahastu egiten dira landatarra eta hiritarra.
- Abeltzaintza intentsiboa v. estentsiboa. Abeltzaintzak abereak menderatzea dakar, baita naturaren kontrola ere, gizakiaren onura eskusiborako.
- Balioetsi behar ditugu lurralde bakoitzeko berezko baliabideak, animalien ustiakuntza erabiltzeke; horretarako, produktu ekologikoak eta garaian garaikoak ekoitzi eta kontsumitu behar ditugu.
- Abeltzaintza estentsiboa ez da arlorako aukera bakarra nekazaritza-munduak ekonomikoki aktibo jarrai dezan. Gainera, haren errendimendua oso eskasa denez, ezinezkoa da bera bihurtzea oinarrizko elikadura. Abeltzaintza intentsiboa desagertuko balitz, soilik pribilegiatu bakan batzuek eros lezakete ekoizpen estentsiboan hezitako abereen okela.

Konklusioak

Hemen gauden emakumezkook —feminista antiespezistak eta elikadura-subiranotasunaren aldeko feministak— baditugu **etsai komunak**: abeltzaintza intentsiboa, kapitalismoa, kontsumismoa, patriarkatua, botika-industriak...

Baita **estrategia komunak** ere: sostengu-sareak indartzea, alternatibak aurkeztea, era kontzientean kontsumitzea, nekazaritza, autogestioa eta kontsumo-sareak sustatzea...

Eta **helburu amankomun** bat: BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEA.

Dena den, badaude dibergentzia-puntuak:

- Zer egin animaliekin?
- Nola kudeatu nekazari-munduaren eta hiri-munduaren arteko erlazioa?
- Bizitzak erdigunean; baina noren bizitzak?

Elkarrekin jarraitzeko modu bat izan daiteke batzen gaituen horren inguruan lan egitea (esate baterako, abeltzaintza industrialaren kontrako gaitzespena), bai eta ezberdintasunen inguruan debate eraikitzailea sortzen segitzea ere.



Horren ondoren, solasaldia egon zen —laburra, denbora faltagatik—, non parte-hartzaileek hainbat esku-hartze egin zituzten: batzuek enfasia jarri zuten abeltzaintza jasangarri eta estentsiboaren onuretan eta haren premian; beste batzuk kritikoak izan ziren planteamendu horrekin, eta tarteko jarrerak garatu zituzten bi korronteen artean.

EMAKUME-KOLEKTIBOEN ARTIKULAZIOA ELIKADURA-SUBIRANOTASUNAREN ETA FEMINISMOAREN INGURUAN – TALDEKAKO DINAMIKAK ETA HAUSNARKETA

Arratsaldean, beste dinamika batzuk egin genituen “lanari ekiteko”, helburua izaki emakumezkoen kolektiboen arteko (landetakoak zein hirietakoak) balizko artikulazioetan aurrerapausoak egiteko beharra transmititzea elikadura-subiranotasunaren eta feminismoaren inguruan.

Bi esparrutan egin genuen lan, taldeka —oso aberatsak izan ziren taldeak, debateetan nahiz hausnarketetan—; halaber, une batzuetan, batzarrak egin genituen taldeka landutakoa komunean jartzeko.

Arratsaldeko lehen dinamikaren helburua izan zen identifikatzea nor geunden foroan eta ea alde zuzeneko artikulaziorik edo harreman pertsonalik ote zegoen bertako kolektiboen edota emakumezkoen artean.

Horretarako, Nafarroako mapa marraztu zen paper jarraitu batean, eta bi taldetan banandu ginen: lehenengoan jarri ziren beren burua “hiritar”tzat jo zuten emakumezkoak; bestean, beren burua “landatar”tzat jo zutenak. Halaber, hausnarketa bat egon zen bi kontzeptuok ez kategorizatzeari buruz, nortasunak jariakorrak izaten dira-eta momentuaren arabera.

Era horretan, diagnostiko bat egin zen bi taldeetako bakoitzean (talde bietan bildu ziren kolektibo feministak eta elikadura-subiranotasunaren eta lurraldearen inguruan lan egiten duten emakume-taldeak). Pertsona bakoitzak bere izena edota bere talde/kolektiboaren izena jarri zuen lurralde-mapan, eta gero, gezi bidez, taldeen arteko erlazioak markatu zituzten.



Ondoren, bi kolektiboak batu ziren (hiri-gunekoa eta landa-gunekoa), eta, bi paperografoak batuta, bata bestearen alboan, bi taldeen arteko erlazioak ezarri zituzten, gezi bidez.

Parte-hartzaile guztiek bi mapak eta haien arteko erlazioak aztertu zituzten; ondoren, hainbat hausnarketa plazaratu zituzten horretaz guztiaz.

Hainbat lekutako emakumeak identifikatu ziren: Iruñea, Lizarra, Elizondo, Leitza, Bera, Ziordia, Larrion, Artabia, Ezkaroze, Espartza Zaraitzu, Uztarroze, Izaba, Oskotz, Tafalla, Zangoza, Izkue eta Estatuko beste erkidego batzuetakoak: Euskal Autonomia Erkidegokoak (zehatz-mehatz,

Itsasondo eta Beizamakoak), Errioxakoak, Madrilgoak, Kantabriakoak, Aragoikoak, Gaztela eta Leongoak eta Asturiasekoak.

Erlazio-dentsitate handia antzeman zen Iruñean, eta gero Lizarran, Elizondon eta Leitzan. Mapak erakutsi zuen, halaber, deskonexio handia dagoela Nafarroa Garaiko iparraldearen eta hegoaldearen artean; hori dela eta, zenbait proposamen agertu ziren bi zona geografiko horiek gehiago lotzeko. Era berean, erlazio asko antzeman ziren Gipuzkoarekin zein Gasteizekin.



Jarraian, arratsaldeko bigarren atalean, beste dinamika batzuk planteatu ziren, artikulazio-proposamen zehatzetan aurrerapausoak egiteko asmoz.


Horri begira, 2018ko foroan azaleratu ziren bi gai nagusiekin bat eginda, bi hausnarketa-gai nagusi planteatu ziren: **intzidentzia politiko**a eta bertan geunden emakumezkoen zein kolektiboek, landetakoak zein hirietakoak izanda, **hobeki ezagutzea elkar**; horretarako, zenbait emakume-taldea eratu ziren gaiak lantzeko: batzuk, gaztelaniaz; besteak, euskaraz.

Aurreneko fase batean, taldeetako bakoitzak finkatu zuen zein gai landu zitezkeen intzidentzia politikoaren bitartez edo elkar hobeki ezagutzeko jarduketan bidez; horren ondoren, gaietako batzuk lehenetsi zituzten, taldeka.

Jarraian, talde bakoitzean lehenetsitako hiru gaiak jasoko ditugu, ikus dezagun zein aberatsak izan ziren proposamenak.

Intzidentzia politikoaren gaien, ondoko ekintzak jaso ziren:

- Ekintza politikoak osasun-zentroetan, ikastetxeetako jantokietan, haur-parkeetan, nagusien egoitzetan...
- Administrazio publikoei begira: eskatu behar zaie emakumezkoek ekoiztako produktu ekologikoak erabil ditzatela, gara eta, ondoren, heda ditzatela elikadura-subiranotasunaren eta feminismoaren arteko loturak, eta, horrez guztiaz gain, gizartea sentsibiliza dezatela elikadura-subiranotasunaren eta feminismoen inguruan.
- Ikusi eta zehaztu zer egin daitekeen hainbat arlotan, eta gero asmo horiek aurrera eramanean.
- Ekoizpena, kontsumoa eta Administrazioa, oinarriko zerbitzuak (osasuna, hezkuntza, nekazari mundua, Internet...), higienearen zein osasungintzaren arloa malgutu, salmenta zuzeneko lege autonomikoa, ongi bizitzea eta zaintzak.



Horren ondoren, eta “lurreratzen” jarraitzeko, bigarren fase batean, taldeka, jarduketak edo lehenetsitako gaiak abian jartzeko eragileak eta baliabideak identifikatu ziren, eta, aldi berean, hori guztia egikaritzeko azpi-jarduketak ere pentsatu ziren. Informazio hori dena komunean jarri zen, segidan, batzarrean.

Hauexek izan ziren intzidentzia politiko eta sozialeko talde guztietan hiru ideia bozkatuenak garatzeko bidean jar daitezten:

- *Ekintza politikoa osasun-zentroetan, ikastetxeetako jantokietan, haur-parkeetan, nagusien egoitzetan...*
- *Ikusi eta zehaztu zer egin daitekeen hainbat arlotan, eta gero asmo horiek aurrera eraman: ekoizpenean, kontsumoan eta Administrazioan.*
- *Oinarrizko zerbitzuak landa-guneetan (osasungintza, hezkuntza, Internet...).*

Jarraian, fase honetako eta gai honi buruzko taldekako lanaren **adibide**etako bat duzue ikusgai.

Ikusi eta zehaztu zer egin daitekeen hainbat arlotan, eta gero asmo horiek aurrera eraman asmo horiek: ekoizpenean, kontsumoan eta Administrazioan

	JARDUERAK	ERAGILEAK	BALIABIDEAK
EKOIZLEAK	Elkarlotu / sarea sortu praktika kolektiboen artean, gero aurrera eramateko (komunalak)	<ul style="list-style-type: none"> • Ekoizleak • Pertsona dinamizatzailerak 	<ul style="list-style-type: none"> • Denbora • Espazioa • Dirua • Aholkularitza
KONTSUMITZAILEAK	Subiranotasunerako kontsumoa: dekalogoia	<ul style="list-style-type: none"> - Kolektiboak - Pertsona kontsumitzaileak 	<ul style="list-style-type: none"> • Dirua • Denbora • Dendak • Talde eragilea
ADMINISTRAZIOA	Erosketa publikoaren bitartez, elikadura-subiranotasuna sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Nafarroako Gobernua • Hezkuntza Saila • Osasun Saila • Udalak 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrekontua • Denbora
SALTZAILEAK			
Eta zer gertatzen da NPBrekin?			

Landetako zein hirietako emakumezkoek/kolektiboek elkar hobeki ezagutzearen inguruko gaian, honako jarduketa hauek lehenetsi ziren:

- Auzolanak⁷, elkar ezagutzeko eta aktibismo politikorako bide gisa.
- Hiru ardatzak artikulatzea (elikadura-subiranotasuna, feminismoa eta lurraldearen defentsa), jarduera, ekintza eta ekitaldien bidez, gutxienez hiru ardatzetako bat lantzeko (dibertsifikatzen hasi beharra dago: ezin badira hiru ardatzak batera artikulatu, behintzat biren arteko artikulazioa lortzen hasi).

Jarraian, fase honetako eta gai honen inguruko talde-lanaren eredu bat ikusgai.

Auzolanak, elkar ezagutzeko eta aktibismo politikorako bide gisa

ERAGILEAK	BALIABIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> • Nekazariak • Talde feministak • Nekazaritza-elkarteak 	<ul style="list-style-type: none"> • Giza baliabideak: pertsonak, 3 orduko tailerretan • Liburu irekiak • Materialak • Garraioa • Komunikazioak • Jakiak

KONTZERTUA

Eguna amaitzeko, Zabaldin dantzatu ginen (Elkartasunaren Etxea – Casa de la Solidaridad)⁸, Malezas musika ekofeministako taldearekin; nondik eta Madrilgo Las Vegas eskualdetik etorri zitzaizkigun, foroa musikaz, beroz eta dantzaz blaitzeko!

⁷ Auzolana lan kolektiboa edo auzokideen lan tradizionala da baserri-munduan; herri-ondarea mantentzea du helburu, eta gizarte-antolaketa berezi batetik dator, kolektibitatean oinarrituta.

⁸ Zabaldi: <https://zabaldi.org/index.php/es/>

PASEO TEMATIKOA: “LURRALDEAREN DEFENTSA ETA ESPERIENTZIA AGROEKOLOGIKOAK BAZTANEN”

Igandean, landetara atera ginen Baztan harana ezagutzeko asmoz, esperientzia agroekologiko batzuen bidez; gidari gisa, zenbait talde aritu ziren, zeinek haranerako etorkizun duina (erauzketa-proiekturik eta espekulaziorik gabe) defendatzen duten.

Paseo tematiko batez gozatu genuen, Elizondo eta Lekaroz artean; bitartean, protagonistek beren egitasmoak eta erresistentziak kontatu zizkiguten.



Ana Iriartek eman zion hasiera; **arno zuri ekologikoaren ekoizlea** da, eta **Baztango Xurie-n** egiten du lan:

“2013an hasi ginen mahastiak landatzen, Iparraldeko herri hurbilak —Irulegi eta Baigorri, erraterako— eredu gisa hartuta. Mahastiak Arizkunen daude, eta nekazaritza ekologikoaren irizpideen arabera egiten dugu lan. Gure haranean lan egin eta bizi nahi dugu, nekazaritza-alorrean, zikloak betez: mahatsondoak landatzetik ardoa ekoiztera”.

Apurka-apurka doaz, guztiz ez zorpetzeko, eta beti “oinak lurrean”. Baztango Zaporeak bertako ekoizleen elkarteko kide dira: hango lehengaiak ekoiztu eta eraldatzen dituzte, lehentasuna emanda zuzeneko salmentari edo distantzia laburrekoari. Lurrari loturiko produktuak dira, nekazaritza-jarduera familiarretatik etorriak, eredu industrialetik kanpo. Zera eskaintzen dute: gaztak, jogurtak, okela, arrautza ekologikoak, barazkiak, ezta, marmeladak, sagarnoa eta arnoa.

María Goienetxe, parte-hartzailea **Erdiz Bizirik Plataforman**.

Kontatu zigun Plataforma 2003an sortu zela, Magnesitas de Navarra (Magna) enpresak Erdiz alderdian aire zabaleko meategi bat zabaltzeko zeukan proiektuaren kontra. 2008an, proiektua gelditu egin zen *"baztandarren etengabeko aurkakotasunarengatik"*, baina 2019ko udan enpresak berriro ekin zion planari. Uztailaren hasieran —jai, opor eta abarren garai betean—, Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen hilabeteko epea zabalduko zela 'iradokizunak' aurkezteko proiektuaren laburpen-memoriari; ziur aski, data horiek aukeratu zituzten oposizio-lana oztopatzeko.

Erdiz ingurua Aldude mendiko Babes Bereziko Eremuan (BBE) dago, Natura 2000 Sarearen barruan. Bertan, Baztango herri-bazkalekurik zabalena dago, lauorgeri baserrik baino gehiagok erabiltzen dutena. Mariak kontatu digu ezen, proiektua gauzatuz gero, *"tonak eta tonak material aterako lirateke, sarbideak eraikiko lituzkete makineria astuna bertara iristeko, eta meategiak 20 bat urte iraungo luke; gero, zuloz bat besterik ez litzateke geratuko. Altxor agroekologiko handia birrinduko lukete, eta, harekin batera, fauna, landaredia..."*

Behin Aroztegia jauregian, gure azken geldialdi aurreikusia, azken parte-hartzeak izan genituen.

Amaia Iturriria baztandar gaztea; denbora batez kanpoan ikasten ibili ostean, haranera itzuli zen bertan lan egitera, bikotekidearekin batera, abeltzaintza ekologikoaren arloan.

Trantsizio-prozesu bete-betean daude, gogo handiz eta estereotipoak apurtzen: erraterako, emakumezkoa izanda nekazaritza-sektorean lan egitea. Euskaraz bizi nahi du, lurra lantzen, bere haranean, emakumezkoen eskubideak eta herri-ondasunen zein lurraldearen defentsa aldarrikatzen dituen bitartean.

Miren Meoki Lekarozeko alkate ohiak erakutsi zigun non eraiki nahi duten urbanizaziotzar bat: 200dik gora etxebizitza familiabakar, golf-zelaia eta luxuzko hotela izanen ditu; Aroztegia jauregi zaharrean eta inguruko belardietan egingo litzateke, Lekaroz herriaren aldirietan.

Proiektu horrek urte asko daramatza mahai gainean, baita haren kontrako oposizioak ere. Proiektu espekulatzailea da, arrakastarik gabeko hirigintza-eredu baten aldekoa; haraneko bizitza goitik behera aldatuko luke: izugarritzko inpaktua leukake ingurumenean zein gizartean, eta turismo-mota jasanezina eta elitista erakarriko luke, zeinak, haranean ez integratzeaz gain, batez ere kalteak lekarzkiokoen bertako jendeari. Horregatik, Baztango biztanleek hainbat aldiz adierazi dute aurkakotasun tinkoa; hala, adibidez, 2016ko herri-galdeketa, jendeak ezezko biribila eman zion proiektuari. *"Haranak kontrako jarrera erakutsi arren, proiektuak aitzina jarraitzen du Nafarroako Gobernuaren oniritzia duelako. Gainera, erabateko gabezia dago informazioan eta gardentasunean"*.

Aroztegia eta gero, zer? Plataformatik mobilizazio ugari egin dituzte, urte hauetan guztietan, garapen-eredu harrapakari hori zalantzan jartzearen. Hala eta guztiz ere, proiektuak aitzina jarraitzen du, eta 2019 honetan jakitera eman zen luxuzko hotelaren enpresa kudeatzailea Paris Hilton izango dela.

Beste leku batzuetako kideen ahotsek antzeko beste proiektu batzuek hitz egin ziguten (esaterako, Valdezcarayn edo Aragoiko Pirinioetan), non antzeko praktika ilunak eta immoralak egiten ari diren enpresa sustatzaileak (normalean, Administrazioarekin elkar hartuta). Horiek entzunda, berriro konturatu ginen zein garrantzitsua den sareak ehuntzea elkarri informatzeko eta eusteko.

Suntsiketei aurre eginez eta sistema bidezko baten alde eginez (zeinak bizitza jarriko duen erdigunean), foroko emakumezko parte-hartzaileok leku horretan bildu ginen, hirigintza-

basakeria amai dadin eta "Aroztegia jauregia" izeneko proiektua geldi dadin aldarrikatzeko. Arrazoiak eta indarrak bat egin zuten gurekin, lurraren eta bertako izakien defentsan.

Toki paregabe baina mehatxatu honetan, aire zabalean, Malezas taldeko kideek berriro egin ziguten beren musikaren opari. Denok, elkarrekin, batailen jainkosari erregutu genion indarrez eta kemenez dohaindu gintzan, aurre egin ahal izateko gure gorputz eta lurraldeei eraso egiten dietenei.



Paseoari amaiera emateko, foroaren balorazioa egin genuen Arizkunenea Kultur Etxean; orduan, topaketari segida emateko gogo nabarmendu zen parte-hartzaileon hitz eta iritzietan. Eguerdian, Amezti elkartean bazkari agroekologiko gozo-gozoa genuen zain, Ainarak, Josebak eta Uhainak adelatua. **¡Esker anitz arretarengatik, adiskideok!**

Lucía, Mallata blogaren egileak⁹, foroan parte hartu zuen eta idatzin zigun olerki honekin amaitu nahiko genuke:

⁹ Blog Mallata: <https://mallata.com/>

Unos dedos acarician la tierra
y todo se llena de vida
desde unas voces que son semilla,
desde unas manos que todo siembran.

Somos
mujeres sembrando juntas,
mujeres tocando tierra.
Mujeres creciendo juntas,
compartiendo unidas,
sembrando esperanzas futuras
Debatiendo desde el respeto,
poniendo la vida en el centro,
reivindicando nuestros derechos.

Mujeres
por la soberanía alimentaria
tejiendo redes en el territorio
que atrapen nuestros sueños.

*Hermanas de tierra**,
cosiendo mapas,
haciendo vereda.
Vamos enredadas
en la lana
de las ovejas.

Haciendo rebaño,
haciendo paisaje
y paisanaje.

Encontrándonos en nuestros úteros
con las que nos precedieron.
Intercambiando palabras,
encontrando miradas.

Confundiendo el territorio con nuestros propios cuerpos,
invocando a la Diosa Cuervo,
viajando desde el tacto rugoso de una naranja hasta otros campos,
hasta otros vados.

Cogidas de la mano
defendiendo Lekaroz,
con la energía de Gotzone,
el coraje de Meghan,
la valentía de Carla,
y la sabiduría de Irene.

*Somos
como esos viejos árboles**
sabiéndonos salvajes,
cuidando nuestro andar***

*Somos
igual que nuestra tierra***

**Referencia al manifiesto Por un feminismo de hermanas de tierra, escrito por María Sánchez y Lucía López Marco.*

*** Referencia a la canción Somos, de José Antonio Labordeta, versionada por el grupo Malezas, quienes la cantaron en el foro.*

Dedicado a las mujeres que acudieron los días 14 y 15 de diciembre de 2019 al Foro Tocando Tierra, mujeres sembrando juntas, celebrado entre Pamplona y Elizondo.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, foroa aurrera ateratzeko prozesua osoan lagundu diguzuen pertsona guztioi, baita hasieratik bertatik beren denbora eman diguzuen boluntario guztioi ere; *Plazara!ri*, espazio ezin egokiarengatik, baina, batez ere, erraztasunengatik eta gure beharrian guztietan laguntzeko prestutasuna agertzeagatik; Auzoeneari, une orotan materiala uzteagatik gure beharren arabera; laguntza eman diguten Baztango kolektibo eta pertsona orori; Baztango Udalari, foroa ospatzeko horrenbeste erraztasun emateagatik, eta bereziki Joseba Otondori; Maitane Domenchi, bere bideo zoragarriengatik, eta Jaxin Viniegrari, argazkiengatik; parte-hartzaile guztiei, bene-benetan plazer hutsa izan baita.

Hurrengo arte, ea laster den!

FOROAREN MANIFESTUA

Lan egun emankor hauen ondoren kideen ondorioak bildu ditugu eta ondorengo manifestua adostu dugu:

LURRA SENTITUZ TOCANDO TIERRA

Nafarroa klimari, paisaiari eta nekazal ekoizpenari dagokienez oso lurralde anitza eta aberatsa da, baina nekazaritza intentsiboaren zabaltzea, monolaborantza edo pestiziden gehiegizko erabileraren ondorioz, baliabide naturalen, hau da, lurraren, uraren edo biodibertsitatearen sekulako galera pairatzen ari gara, gizakien osasunean ere sekulako eragina duena (eta jaten ari garena, Europan edo estatuan jaten ditugun elikagaien erdiak hondakin agrotoxikoak dituelako). Hirietako bizi estiloa hiri zein herrietan gailendu egin da, lurrarekiko lotura duen, naturaren erritmoa errespetatzen duen eta lurraldearen jakintza aintzat hartzen duen bizi estiloa erabat alde batera utziz.

LURRA SENTITUZ/ TOCANDO TIERRA, 100 emakume anitza baino gehiago bildu duen topaketa – hirikoak, herrikoak, mugimendu feministatik etorritakoak, elikadura burujabetzaren aldekoak eta megaproiektuen aurkakoak –, baina komuneko helburuarekin: bizitza erdigunean jartzea.

ALDARRIKATZEN DUGU:

- Nafarroan burutzen ari diren proiektu espekulatuak etetea, ingurumenean eta maila sozioekonomikoan duten eraginengatik diru publikoa erabiliz: Aroztegia (Lekaroz), meategiak Baztanen eta Zangozan, Esa urtegia eta Nafarroako Kanalaren handitzea; eta Abiadura Handiko Trenaren lanen etetea, iraunkor tren sozial baten alde eginez.
- Modu esponentzian lurraldean hedatzen ari diren nekazaritza industrialeko makro-haztegiak etetea; gizartean, ingurumenean eta kliman sekulako ondorioak eragiten dituztenak hemen eta pentsuak ekoizten dituzten urrutiko lurraldeetan (batez ere Brasil eta Argentinatik ekarritako soja eta arto transgenikoa). Modu berean, pilatuta bizi diren animalia hauek pairatzen dituzten tratu txarrak salatzen ditugu.
- Erakunde publikoei erosketa publikoaren bitartez, bertakoak, eskala txikian sortutakoak eta irizpide agroekologikoekin egindako produktuak lehenestea eskatzen diegu.
- Nekazal Politika Bateratu berriak gaur egungo elikadura produkzio-ereduaren transizio ekologiko eta soziala ahalbidetzea.
- Nafarroako Gobernuak lurralde-plan estrategiko berriak zehaztean agroekologian oinarritutako elikadura ereduak eta sektorean gazte, emakume eta gizonak sartzea ahalbidetzen dituzten benetako neurriak ezartzeko aukera aprobetxatu dezaten.

BESTE EREDU SOZIO-EKONOMIKO ETA KULTURALA BATERANZKO ALDAKETA, KAPITALAREN METAKETA, GORPUTZEN ZEIN LURRALDEAREN HONDAMENDIA ETA ABERASTASUNA ESKU GUTXI BATZUETAN EGOTEAK MUNDUKO BIZTANLERIA GABEZIA HANDIENERA ZUZENTZEAN OINARRITZEN EZ DEN EREDUA.

ONARTZEN DUGU:

- Nekazal produkzioan, banaketan, salerosketa eta trukeetan, eraldaketan, elaborazio edo produktu osasuntsuen eskarian ekamukeek izan duten eta oraindik duten paper garrantzitsua.
- Zaintza lanen garrantzia aitortzea eta arduren banaketaren beharra, soilik emakumeengan ez egoteko.
- Lurraldea defendatzen duten pertsonak eta eredu agroekologiko eta eskala txikian oinarrituz lurra zaintzen duten emakumeak.

HONEN ALDE EGITEN DUGU:

- Gure gorputzen, elikaduraren, lurraldeen, kolektibotasunaren defentsaren, landa eremuen, zerbitzu publikoen eta baliabide naturalen gain erabakitze eskubidea; elikadura erdigunean jarritzaren funtsezko arloa delako.
- Irizpide etikoetan oinarritutako kontsumo arduratsua.
- Elikagaien ekoizbideak izateko baldintza berak gizon eta emakumeentzat (lurra, ura eta haziak).
- Gazteek landa eremuan bizi eta lan egin ahal izateko erreztasunak; lurren, jakinduriaren eta kulturaren errelebo eta transmisioa bermatuz.
- Landa eremuaren eta euskararen arteko harremana herrien kultura eta ondare linguistikoa bizirik mantentzen laguntzen du.
- Elkarrizketa eraikitzailea feminismoen jarrera ezberdinen artean, antiespezista eta feminismo baserriarraren artean, alegia. Eztabaida eragiten du eta iritzi aniztasuneko eredu berri baterako erronkari heltzeko aberasten gaitu, non desadostasunak hazteko, elkarri entzuteko eta guztion artean eraikitze aukera diren.
- Feminismo komunitarioen eta hegoalde globaleko emakumeen ekarpenak ikuspegi dekolonialetan entzutea, nahi dugun eredu berria guztion artean eraiki dezagun.
- Lurraldearen defentsaren aldeko mugimenduek mugimendu feministaren begirada modu erradikalean txertatu dezaten eta gure inguruko feminismoak lurrari eta landa eremuari sakonki lotu daitezten eta, aldi berean, gorputzaren borroka lurraldera zabal dezaten - gure bigarren azala balitz bezala.

ELIKADURA BURUJABETZA, AGROEKOLOGIA, EKONOMIA FEMINISTA, BERTAKO SAREEN SENDOTZEA, HERRIEN ARTEKO ELKARTASUNA, ELKARREKIKO LAGUNTZA, HORIZONTALTASUNA ETA BATZARRETAN OINARRITUTAKO EREDUAREN ALDE EGITEN DUGU.

LURRALDEAREN DEFENTSA ETA ELIKADURA BURUJABETZA FEMINSTAREN ALDE - LURRA SENTITUZ / TOCANDO TIERRA